

AITA



VILLASANTE



B1

Sarrera-proba

Idazmena eta mintzamena

Izen-abizenak:

Telefona eta helbide elektronikoa:

Matrikula-zenbakia:

Idazmena

VILLASANTE

Aukeratu proposatutako **gaietako bat**.

Idatzi **110-140 berba** bitarteko testua. **Ez erabili letra handiegia**.

1. gaia: Zer egin?

Egoera:

Duela hilabete batzuk pertsona batekin hasi zinen ordenagailuz hizketan edo txateatzen, eta, harrezkero ia egunero hitz egiten duzue. Elkarrekin ateratzeko eskatu zizun aurreko astean, baina zu zalantzan zaude proposamena onartu ala ez.



Egitekoa:

Idatzi mezu bat zure lagun bati harreman horren berri emateko eta, bide batez, aholkua eskatzeko, aurrera begira zer egin ez dakizulako, eta horretarako:

- Kontatu nola ezagutu zenuen txateko laguna.
- Lagun hori nolakoa den esan.
- Azaldu zeri buruz hitz egiten duzuen.
- Azaldu dituzun zalantzak.



2. gaia: Txakurra, opari?

Egoera:

Baionako lagun batek, e-posta bidez, daukan arazoa azaldu dizu. Bederatzi urteko alabak txakur bat nahi du urtebetetzerako. Ez daki zer egin. Zuk arazo bera izan zenuen semearekin.



Egitekoa:

Kontatu zure esperientzia. Azaldu txakur bat etxean edukitzeak dauzkan alde onak eta txarrak. Aholkua eman. Idatzi e-posta.



AITA



VILLASANTE



Mintzamena

Egin zeure buruaren aurkezpena 2-3 minutu inguruan.

Horretarako, erabili puntu hauetako batzuk:

- Izen-abizenak. Zergatik duzu izen hori?
- Ikasketak (oinarrizko hezkuntza, DBH, unibertsitatea...).
- Euskara zure bizitzan (familiar, lagunartean, Interneten, Whatsappetan...).
- Baduzu tituluren bat? Noiz eta non aterata?
- Zergatik zatoz euskaltegira?
- Zure familia (gurasoak, euren lanbideak, aitaita-amamak...)
- Zure bizitzan gertatutako pasadizo barregarriren bat.
- Zure bizitzan gertatutako pasadizo tristeren bat.

Grabatu egingo dugu testua.